

USOLARRAINGO IGELEN KANTA

Bazen behin Galtzagorri izeneko iratxo bat. Usolarraineko urmaelean bizi zen, bertako zaindaria zen. Galtzagorri lodia, alferra eta txikia zen. Gehien maite zituen animaliak Usolarrainen bizi ziren igelak ziren. Han pasatzen zituen orduak eta orduak, egunak eta egunak bere igel maiteen kantuak entzuten.

Udaberria iritsi zen eta negu hartan euri gutxi egin zuenez egun batean putzua hustu egin zen. Galtzagorri bururatu zitzaion igelak ez hiltzeko Dantzalekuko igerilekura eramatea. Han ere ur gutxi zegoen baina putzuan baino gehiago.

Euria egin zezan egunero joaten zen Galtzagorri iratxoa San Pedro baselizara otoitz egin eta euri pixka bat eskatzera, igandeetan igandezaleak ere iratxoarekin batera otoitz egitera joaten ziren.

Galtzagorri ezin etsirik, egunero joaten zen Dantzalekuko igerilekura bere igel maiteen kantuak entzutera baina gero eta okerrago abesten zutela ohartu zen.

Igerilekua zabaltzeko garaia iritsi zenean, langileak igerilekua betetzen hasi ziren. Galtzagorrik lixiba usaina nabaritu zuen eta orduan ohartu zen bere igel maiteak kloroarekin gaixoturik zeudela.

Usolarrainera itzuli zen eta putzuaren ertzean, etsipenak jota, negarrez hasi zen. Bost egun eta bost gau negarrez pasa ondoren, urmaela pixka bat bete zenean, lo geratu zen. Halako batean, igelen kantu alaiak esnatu zuten. Begiak ireki eta han ikusi zituen ehundaka igel urmaelean sarturik eta betiko kantu alai eta politak kantatzen. Ez zekien ametsetan zegoen edo errealitatea zen. Baina berehala errealitatea zela ohartu zen. Zerura begiratu eta San Pedro

aldetik izugarrizko ekaitza zetorrela ikusi zuen. Trumoiak, tximistak eta euri tanta lodiak zerutik jaisten zirela konturatu zen. Bazekien bere malkoek isuritako urarekin eta euriraren urarekin urmael guztia beteko zela. Galtzagorri pozarren pozez saltoka hasi zenean igelak ere saltoka hasi ziren.

Hurrengo igandean Galtzagorri iratxoa, urmaeleko igelak eta igandezaleak San Pedrora joan ziren egiten ari zen euriarengatik santuari eskerrak ematera.

Hala bazan,

Ez bazan

Sar dadila

Kalabazan

Eta irten dadila

Altsasuko plazan.

Egileak: Leyre Barbarin

Sandra Jaka

Izaskun Ijurra